

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Araitz



Aurkibidea

Udalerria: Araitz

Sarrera



Araitz Nafarroako ipar-mendebaldean dagoen udalerria da, Leitzaldekoa, Gipuzkoako mugan kokaturik dagoena. Iparraldean Areso dauka mugakide; ekialdean, Larraun eta Beteluko udalerriak; hegoaldean, Aralar mendizerra; et,a mendebaldean, Gipuzkoako Lizartza, Oresa, Gaztelu, Amezketa eta Tolosako Bedaio auzoa. Ondoko herri hauek osatzen dute udalerria: Arribe (herriburua), Atallu, Azkarate, Gaintza, Intza eta Uztegi. Dena den, herria hiru kontzejutan dago banatua: Arribe-Atallu, Intza eta Uztegi. Gaur egun ere biztanleen %90etik gora euskaldunak dira, eta euskalkiari dagokionez Koldo Zuazo hizkuntzalariak herriko hizkera erdialdeko euskara edo gipuzkeraren aldaeratzat hartzen du. Euskal hiztunen portzentaje esanguratsua dela-eta UEMAKo (Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea) kidea da. Argazkiko herria Arribe da.

- **Biztanleak:** 582
- **Euskaldunak:** %93,46

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **4**
- Zintak: **4**
- Pasarteak: **0**
- Transkribatutakoak: **0**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **0**

Proiektuak

- Dialektologia-EHU
- Euskal Herriko Ahotsak
- San Ignacio ikastetxea. Ahozko ondarea jasotzen

Hizlariak

Katalina Balda Balda (1928)



Nafarroako Araitz bailaran jaio zen, Gaintzan. Hamaika senidetan zaharrena zen eta Gaintzako Urdumilko baserrian bizitu ziren gurasoekin, aiton-amonekin eta izeba batekin. Katalinak zortzi urte zituela Intzara joan ziren bizitzera. Baserritik bizi ziren eta bertan lan asko izanik eskolan gutxi ibili zela du gogoan. Astigarragara ezkondu zen eta bertan bizi izan da ordudanik. Baratzea ongi ezagutzen du, izan ere, hamabi urtez Donostiako San Martingo merkatuan saldu izan du bere uzta.

Lazaro Goikoetxea Beraza (1960)

Atallun jaioa. Gurasoak, Atallukoak biak ere, nekazariak zituen. Zazpi senidetan seigarrena. Abeltzaina da. Aitziber Lopetegirekin ezkondu zen, eta hiru seme-alaba izan zituzten.

ABT-002 Hizlari ezezaguna (1929)

Gaintzan (Araitz udalerria) jaioa. Herri horretan eman zuen gaztaroa, 8 senideko familia batean. Elkarrizketa egin zitzaionean Hernanin bizi zen. Hainbat kontu aipatu zituen, batez ere baserriko bizimodua, eskolako gorabeherak eta abar.

Maria Teresa Lopetegi Azpiroz (1929)



Ama Iribaskoa zuen, zerbitzaria eta etxeakoandrea. Aita Arriben jaioa, eta hainbat lanbidetan ibilia, besteak beste zerrategi batean. Maria Teresak zazpi urte zituenean hil zen aita. Sei senidetan laugarrena da, eta bera ere zerbitzari lanetan ibili zen, ezkondu arte. Avilako gizon batekin ezkondu zen, baina baita azkar alargundu ere. Alaba bat izan zuten.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-01-17

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com